

OINARRIZKO EKINTZAK


Lehenik eta behin, hornitzaileari eskatzen diogu materiala, beti kantitate handitan, merkeagoa ateratzen delako. Horrek oinarri bat ematen digu produktuak ekoizten hasteko. Interlokutorea hornitzaileekin komunikatzen da. Material kantitate jakin bat eskatzen dio, eta harekin adostasun batera iristen da, bai prezio aldetik, eta baita entregatze-dataren aldetik ere.



Hornitzaileak materiala ekartzerakoan, iritsi zaizkigun produktuaren eskaerak erreparatzen ditugu. (Esan beharra dago, eskatu dugun materiala ekoizpenari hasiera emateko erosi dela, baina gero, hornitzaileei eskaeren arabera eskatzen zaie materiala.) Eskatu dizkiguten produktuak ekoizten hasten gara, lehengaiak biltegitratu eta antolatu ondoren.




Ekoizpen-prozesuaren hasiera produktuaren barruko aldea egitean datza. Plaka elektronikoa eta kableak konektatu, ondo funtzionatzen duela ziurtatu eta hurrengo atala kanpoko alde egitea da. Barruko aldeak bi zati edukitzeko aukera du: lehenengoa, azpimarratu eta ordenagailura pasa. Bigarrena, azpimarratutakoa beste paper batean kopiatzeko aukera dago tinta erabiliz. Azpimarragailuak inprimagailu funtzioa egiten du, paperean dagoena kopiatu eta beste paper batean inprimatzen du. Kanpoko aldea egiteko, molde batzuk erabiltzen ditugu, eta 3D makina baten bidez karkasa egiten dugu.




Barruko aldeari karkasa jarrita, azpimarragailua sortuta dago eta paketatu ondoren, biltegiara bidaltzen da. Biltegiari, eskaerak antolatzen dira, kamioian sartzeko. Interlokutorea garraio-enpresarekin kontaktuan jarri eta prezioa eta data adostuta, enpresak kamioiak edota beste garraio motak ekartzen ditu gure produktua bezeroei eramateko. Produktua bezeroak jasota, balorazio bat egin dezake gure web orrian. Bitartean, zuzendari komertzialak gure produktuari buruzko marketing-a egiten du.



Horretaz gain, etorkizunerako baditugu beste hainbat proiektu buruan. Horietako bat, erabili behar dugun tinta guk ekoiztea izango litzateke, honela hornitzaileekiko menpekotasuna gutxitzea lortuko genuke.



Gure enpresaren organigrama honakoa da:



- **Enpresa zuzendaritza:** departamentuak koordinatu eta antolatu, kontuak egin, administrari lanak egin eta enpresa txikia denez, industria zuzendariari produkzioan lagundu.
- **Zuzendari komertziala:** produktua saltzeaz arduratzen da, marketing-estrategiak bilatzen ditu, produktua nola saldu daitekeen pentsatu, plataforma digitalak antolatu.
- **Industria zuzendaria:** produktua ekoizteaz arduratzen da, produktuaren mekanismotik hasi eta produktuaren kanpo alderaino hain zuzen ere. Kalitatea eta prebentzioa: produktua kalitatezkoa dela ziurtatu, makineriaren funtzionamendua antolatu eta egokia dela ziurtatu, makinak nola erabiltzen diren arauak jarri (arriku laboralen prebentzioa).
- **Interlokuzio zuzendaria:** hornitzaileekin komunikatzen da. Alde batetik, materiala hornitzen duen enpresarekin negoziatu eta adostasun batera iritsi, eta beste alde batetik, gure produktua salmenta-gunera garraiatuko duen enpresarekin komunikatu.

